


BERRIGARA


25. zenbakia

Jardun elkarte, Bergara

1991, ekainak 11



**Don
Serafin:**
*Berriz ere
San Antonion*




**Makina-
erreminta:**
Hiru bergarar
Parisen



Alkatea:
Noiz aukeratuko
da?



Skate:
Gorabehera
haundiko kirola



kutxa

gipuzkoa
donostia kutxa



Barrenkale, 3 • BERGARA • telf.: 940-765919



Barrenkale 16 Tfnoa: 76 20 66

GALDE DEBALDE



Oihane Epelde Bilbao

Aurreko GALDE DEBALDEKO erantzun zuzena EMEN DAUDEN GIZON ARGIDOTARRAK DIRA ZUZENDARI, EMAN ZAYOGUN BETI BERGARARRAK ONRA ERRIARI genuen. ZUBIKUA dendako SARIA Oihane Epeldek irabazi du. Argazkia honetan ikusten dugu gure saritua ZUBIKUA DENDAN saria jasotzen. ZORIONAK Irabazleari! Eta besteok animatu, eta erantzuna eman aste hontako galderari!



ETXEA

Elektragailuak
T.B. - Bideoak - HI FI
Sukaldeko Altzariak

Matxiategi 3 Tfnoa: 76 12 22 BERGARA



Zubikua

JANTZIDENDA

Barrenkale 24, Tfnoa: 76 10 57

BERRIGARA

Argitaratzailea:

Jardun Elkartea

Errotalde Jauregia, 20.570 Bergara

Tfona: 760397

Laguntzailea: Bergarako Udala

Zuzendaria:

Miguel Angel Elkoroberezibar

Erredakzioa:

Eneko Azkarate, Eduardo Mendibil

Maketazioa:

Edume Arenaza

Publizitatea eta harpidetza:

Ignazio Irigoien, Edume Arenaza

Tfona: 760397

Erredakzio-kontseilua: Jose Angel

Mikeo, Estepan Plazaola eta Juan

Martin Elxepuru

Kolaboratzaileak: J. Oregi, A.

Urzelai, Maripi Laskurain, Olaia Inza,

Ainhoa Leta, Jon A. Bengoa, Mikel

Lizarralde, Monika Belastegi, Mikel

Elkoroberezibar, Josune Iñarra eta

Xabier Aranburu, Aitziber Aretxaga

eta Ainhoa Bikufia

Argazki laborategia: A. Gallastegi,

B. Cantero, M. Leturia, K. Retolaza,

J.A. Eguren, J.I. Millan, J. Aguayo, J.

Tabares, Txomin Retolaza, Kifitu eta

Pol-Pol Mendizale Taldea.

Komikia eta marrazkiak: Josu Okina

eta Antonio Arrillaga

Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Ofati)

Banaketak: Txanxangorri Taldea

Copyright:

BERRIGARA

Tirada: 2.500 ale

Lege gordailua: SS 50/91

ISSN: 1130-6599

BERRIGARA ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta erizien erantzunkizunik.



14 OSTIRALA

• Zinea: "Libertad para morir", 10.30etan.

• Erakusketak:

• Kultur Etxean Getxoko Arregintza Kolektiboa taldearen margo Erakusketa. 16ra arte zabalik.

• Kontzertuak:

• Aretxabaletan, Gaztetxean: CLGSE, Arkhe eta Ira eta Decesu 10etan.

• Eibar, Untzaga plazan: Goldon Appel Quartet 11 eta.

• Pilota partiduak:

• Elgetan, gaueko 10etan: Urien/Nagore; Mujika/ Capellan eta Baceta/Tintin.

• Goardiako farmazia: Mozos (San Pedron)

15 LARUNBATA

• Zinea: "Libertad para morir"; 5 eta 7etan.

"Como ser mujer y no morir en el intento" 10.30etan,

• Pilota partiduak: Frontoian, 4.30etan hasita, honako neurketa hauek ikuteko aukera: Ansotegi-Urra/ Zabalala-Mendia; Etxaniz-Ga-

larza III/Retegi II-Errasti; eta bukatzeko Intxaurren- do-Alberdi III /Loiarte- Unzain.

• Kontzertuak:

• Bergaran, Txibisto dantzalekuan *Running Wild eta Raven* taldeak gaueko 11etan.

• Eibarren, Ipurua kiroldegian *Los Ronaldos eta Julio Kagea*.

• Azkoitiako plazan *Zarama* taldea gaueko 10.30etan

• Goardiako farmazia: Camacho (Oxirondo enparantzan)

16 IGANDEA

• Zinea: "Como ser mujer y no morir en el intento", 5, 7.30etan eta 10.30etan.

• Goardiako farmazia:

Egunez: Camacho (Oxirondo Enparantzan)

Gauetz: Azcoaga (Arrasaten)

17 ASTELEHENA

• Zinea: "Como ser mujer y no morir en el intento" 7.15 etan.

• Kontzertuak: Aretxabaletan, Gaztetxean 10etan *Inside Out*.

• Goardiako farmazia:

Egunez: Puy (Barrenkalen)

Gauetz: Español (Arrasaten)

18 ASTEARTEA

• Goardiako farmazia:

Egunez: Guallar (San Antonio)

Gauetz: Corcuera (Arrasaten)

19 ASTEAZKENA

• Kontzertua:

• Bergaran Gaztetxean 8etan *Forg Sandwich*.

• Goardiako farmazia:

Egunez: Estella (Matxiategin)

Gauetz: Irizar (Arrasaten)

20 OSTEGUNA

• Hitzaldia:

Arratsaldeko 7.30etan, Kultur Etxean JARDU-NEKeta Mendia Bizirik taldeak antolaturik Hitzaldi-

diapositiba emanaldia. Gaia: Euskal Herriko basoetako fauna.

• Goardiako farmazia:

Egunez: Mozos (San Pedron)

Gauetz: Amezua (Arrasaten)

Aukeran...

Txibiston

larunbatean

gaueko 11etan

Running Wild eta

Raven.



ANTIA

HARATEGIA

URDATEGIA

Txahal, idi, txerri bildots, untxi baserriko oilaskoak

Matxiategi Tfona: 76 15 09 BERGARA

BRIKOLAIA AUTOMOZIOA

Turismoak, kamioiak, etab.

Bolu, Tfona: 764404 BERGARA

Aldoka Maldoka

Taberna

KRUZ GALLASTEGI
BERGARA

MAKAILO

BAKALAU **ETXEA**
KAZUELAK
GERTATZEZ DITUGU

IBARGARAI 15

IGARZA

Merzeria Lenzeria

Udarako bainujantziak

Irala5 Tfnoa 76 24 88

TOKI-EDER

Taberna

Pintxoak eta
eguneko bazkariak

Artzamendi Tfnoa: 76 51 84 BERGARA

Batxilergoaren planifikazioaz



• Orain dela gutxi, Udal Kontseiluko inizatibari jarraituz, REM ipintzea erabaki zen Bergarako Institutuan.

Aurreinskripzioa gaineratu zitzaigunean Maiatzak 15ean, Hezkuntza Ordezkaritzatik REM-a ipintzeko eskaerari ezetz borobila luzatu ziguten ezetzaren inolako arrazoirik eman gabe. Hezkuntza Ordezkaritzak esan zigun erabakia Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak hartu zuela.

Maiatzaren 16an Irakaskuntza Ertainetako Ikastetxe publikoetako zuzendariak bilera bat izan genuen Oliveri jaunarekin, non Gobernuaren Hezkuntza Programa aurkeztu ziguten. Galderetara heldu zenean galdetu zitzaion ea zein arrazoigatik ukatu zitzaigun REM-aren ezarpena. Erantzuna: adar berriak zabaltzearen aurka zeudela, nahiz sare publiko eta ikastoletan nahiz pribatuetan.


Egun bereko arratsaldean jakinarazten zaigu Aranzadi Ikastolari BUP-aren aurreinskripzioa egiteko baimena eman zitzaiola. Nola, ordu batzu lehenago gauza batzu esan (berrogei baino zuzendari gehiagok han esandakoa baieztu dezake) handik gutxira bestelakoa esateko? Benetan harritzekoa eta sinesgaitza.

• Momentu honetan D eredia (euskaraz ematen den batxilertoa) ongi finkatua daukagu. Hamar bat urte daramatzagu, 80-81 ikasturteetik hain zuzen, Batxilergoko D eredian klaseak ematen. Denbora pasa ahala, esperientziak, ikasmaterialez, eta abar, hornituz joan gara. Une honetan 12 talde edo gela dira euskaraz ikasten dutenak. Ikastetxe honetan irakasten dena kalitatezkoa da. Irakaslearen titulazioak, ikasleen ikasketa agiriak, instalakuntza eta materialeen hornikuntza onak frogatzen du, besteak beste esandakoa. Gainera, irakaskuntza erabat dohaina da.


• Esanak kontutan izanik, iruditzen zaigu ez dela komenigarria BUP-a ezartzea Bergarako Aranzadi Ikastolan. Eta hau ondorengoagatik: Institutua gai delako Batxilergoko eskaera guztia betetzeko; zerbitzuak bikoizteak alferrikako gastu bat suposatuko duelako, eta hau kalitatearen kontra joan daiteke; Irakaskuntza publikoari, Institutuari, euskal adarraren desagertzea ekarriko liokeelako; etorkizunean gizartearen benetako integrazioa oztopa lezakeelako. Euskaldunak ikastolan eta kastellanoak Institutuan? Etorkizunean posible ikusten genuen irakaskuntza publiko eta ikastolaren konfluentzia atzeratzeaz gain, ia ezinezkoa egiten duelako.


Begarako Batxilergo Institutua

Tiiira ba!



Josu Okina





Bertso onenari saria

Ainhoa Agirreazaldegik txapelketa bikaina burutu zuen Donostian izandako Eskolarteko Bertso Lehiaketan. Ainhoaren taldea garaile izan genuen bapateko modalitatean, eta horrez gain, Ainhoak bertso onenaren saria eta idatzizko modalitatean ere aipamen berezia jaso zituen. Ainhoari lau oin jarri zizkioten eta honako bertso hau bota zuen: *Irabazteko ondo/kantatu beharra/ hortarako nik badut/ nahikoa indarra/ gainera ez dadukat/ esperantza txarra/ baina bost talde gaude/ ta txapel bakarra*. Ainhoak Euskadiko Txapelketa lortzeko ahaleginak egingo ditu larunbat honetan Gernikan.



Mariaren Lagundiko jaia

Urtero bezala, aurten ere Mariaren Lagundiko Ikastolak bere jaia ospatu zuen joan den igandean. Ekitaldiak goizeko 11 t'erdietan hasi ziren, bertako Elizan izandako herri-mezarekin; egun guztian zehar jende dexente hurbildu zen Mariaren Lagundiko *ortu zaharrera* eta han izan ziren haur-jolasak, kirol txapelketak, gastronomi lehiaketa, sokamuturra...

Arratsaldean, jai-giroa nagusi zelarik, *Ibaiak* taldeak alaitutako dantzaldiak jarri zuen jaiaren azken txanpa.



Berriztapenak jubilatuetan

Bergarako Udaletxeak Jubilatuen Etxean zenbait obra burutzeko asmoa dauka; proiektu honen arabera, etxearen atzekaldea handitu, sukaldea handitu eta hobetu, eta mantenimendurako tailerra eta biltegia ere eraikiko dira. Era berean, jubilatuen etxea eta Santa Marina atzekaldean eraiki berri dituzten etxeen artean jarriko den lorategian bolatoki estali bat egingo da. Obraren aurrekontua 32 milioikoa da eta etxeak guztira 152 m ko anpliazioa izango du.

Uda kanpaina

Iaz bezala, aurten ere Udal Kirol Zerbitzuak, zenbait kirol ikastaro antolatu ditu uztaileko. Kirolen bat praktikatu nahi duzuenok aukera zabala duzue oraingoan ere. Ikastaro hauen lehenengo txanda uztailean Ietik 12ra bitartean izango da eta bigarrena, uztailearen 15etik 29ra. Esan, parapente eta kainoi jeitsierakoan izan ezik, gainontzekoetan bazkideei beherapena egingo zaiela.

Telefono berdea

Pol-Polak ingurugiro ordezkariarekin harremanetan jarri nahi dutenentzat telefono berdea ipini du. Beraz, ingurugiroari buruzko informazio eskaera edo kexatan laguntzeko prest bazaude, deitu 76 02 64 telefonora. Bestalde, aurtengo federatu karneta eta bazkide kuota ordaindu gabe duzuenok Pol-Poleko bulegotik pasa zaitzke ekainaren 30ra baino lehen.

HALTZARI

FAGOR ALTZARIEN BANATZAILEA
SUKALDERAKO ALTZARIAK

BOLU 24 Tfnoa: 76 30 57
BERGARA



KONDE
PAÑADEROKUA
Burdiñate 1
BERGARA

ERREKI

ERRETEGIA

TXITXARRO ETA SAIHESKI JANA
ASTEBUKAERETAN

Fraiskozuri Enparantza
Tfnoa: 76 38 51

BERGARA



Antzerkia ikasleentzat

Kurto amaiera dela eta, Bergarako Batxilergo Institutoak maila ertaineko ikasleentzat antzerki emanaldi bat antolatu zuen joan zen ostiralean Mariaren Lagundiko aretoan.

Gasteizko Traspasos antzerki taldeak koreografian oinarritutako "Tendo" obra antzeztu zuen. Testurik gabeko ikuskizun eder honek 150 lagun inguru bildu zituen, nahiz eta azterketak direla medio, ikasle askok joaterik ez izan.

Begarako ikastetxeek datorren ikasturterako honelako ikuskizun gehiago antolatzeko asmoa azaldu dute.



Ikastaroak HHIn (EPAn)

Begarako HHI zentruak ekainaren 10etik 19ra bitartean zenbait ikastaro prestatu ditu, ikastaro guzti hauek doan direlarik. Zentru honek bestalde, 91-92 ikasturterako matrikula egiteko epea jadanik zabaldu du. Matrikula epea ekainaren 26rarte zabalik egongo da. Ikastaroei buruzko informazioa nahi baduzue dei 76 44 52 tfno.ra, edota Irizar Jauregira hurbildu zaitezket.

☐ Heavy jaialdia

Larunbat honetan heavy kontzertua izango da Txibiston. Oraingo honetan, Running Wild eta Raven anglosajoi taldeak izango ditugu euren azken lanak aurkeztu asmoz. Heavy jarraitzaileen artean oso ezagunak omen dira. Eta berien azken diskarekin oso salmenta onak ari dira lortzen.

☐ 2.927

Xabier Larrañaga izan dugu Aranzadi Ikastolako 7. mailako ikasleek Ikas Bidaiarako zozketatu duten bizikletaren irabazlea. Esan bezala, 2.927 zenbakia izan da saritua. Anekdota bezala aipatu Xabierrek berak saltzeko zuen takotik saldu ezinik geratu zitzaion boletuetako bat dela sariduna.



Alkatearen aukeraketa noiz?

Asteartean egindako ezohizko plenoan Udaletxeko idazkariak larunbatean, hilak 15 eguerdiko 12etan, hurrengo alkatea aukeratzeko ezohizko plenoa egingo zela iragarri zuen. Jose Luis Elkoro alkateak, bestalde, insignia bana banatu zien amaitu den legegaldian lanean aritu diren 16 zinegotziei. Alkate berria aukeratzeko eguna ekainaren 15erako iragarri bada ere, baliteke uztailearen 5erako hurrengo alkatearen izena ez ezagutzea. Izan ere Hauteskunde Mahaiak eta EAJk Maiatzaren 26ko bozketetan egin zuten irregulartasunak salhattu ditu HBk Euskal Herriko Auzitegi Gorenaren aurrean.

HBren eritziz, Jeltzaleek ez zuten garbi jokatu aipatu bozketetan, legeak onartzen ez dituen hauteskunde zerrendak aurkeztu zutelako: 17 hautagai eta hiru ordezkioen izenak jarri beharrean, 20 hautagaien izenak jarri zituzten zerrendetan. Hauteskunde Batzordeak, bestalde, onartu egin zuen EAJren jokaera eta hori da HBk salhatu duena. Gauzak horrela eta Auzitegi Gorenaren erabakiaren zai, baliteke larunbat honetan hurrengo alkatea aukeratzeko osoko bilkura ez egitea, eta uztailearen 5erako zinegotzi eta alkate berriek lanari ez ekitea.

BARRENKALE 4 Tfnoa: 76 18 14

ELADIO

OINETAKOAK

Oinetako konponketa

MATXIATEGI 2,

Tfnoa: 76 54 60

BERGARA


Bergarako hiru enpresa Parisen

50 enpresa inguru aurkeztu dira aurten Parisen ekainaren 4etik 12ra bitartean burutuden makina-erreminta erakusketan. Horien artean, bergarako 3 enpresa ere izan ditugu; Orni S.A., Soraluce S. Koop. eta Txurtxil S. Koop. hain zuzen ere. Lazpiur S.A.k Pariseko ferian parte hartu ez duen arren, berarengana ere jo dugu makina-erremintaren gainean zertxobait gehiago jakiteko asmoz.

Urte hasieran krisialdia ezagutu ondoren, pixkanaka-pixkanaka sektore hau berriro indartzen hasi da. Beste sektore askoren kasuan bezala, krisi horren arrazoietako bat Golkoko Gerra izan genuen. Txurtxilen esan diguten bezala, "Krisia Golkoko Gerrarekin batera azaldu zen, baina abendua baino lehen antzeman zitezkeen krisialdia jasango genuela".


Sektore gehienek jasaten ari diren krisialdia gainditu orduko, makina-erremintak berriro ere lehengo produk-

zio indizeak eta lehen zuen maila altua erreuperatzen hasi da. Momentu on horren lekuko ditugu sektore honetan murgiltzen diren Bergarako lau enpresek egiten dituzten exportazioak; Soraluce esate baterako bere produkzioaren % 60 -65a mugatik kanpo saltzen du, eta Lazpiurrek aldiz, % 15-20a. Txekoslovakia, Alema-



nia, Australia, Estatu Batzak, Hego Amerika... etab. luze bat izaten da askotan enpresa hauen produkzioaren kokagunea. Horrez gain, Lazpiur izan ezik, beste hirurak Pariseko erakusketan izan dira beraien makinaria erakutsi eta saltzeko asmoz. Lazpiur S.A.k duen politikaren arabera, enpresa honek ez du ferietan parte hartzen bezeroak aurrez-aurre tratatzea nahiago duelako.

Enpresa hauek Parisera eraman duten materialari dagokionez, Txurtxilek sarpenarekin nolabaiteko ha-



rremana duen guztia erakutsi nahi izan du Parisen. Txurtxilek eta Soralucek, beste hiru enpresekin batera (Danobat, Goiti eta Izarraitz), Debako izeneko taldea osatzen dute. Hauek, taldean lan egiten dute bostok aurrera egin dezaten, eta euren esanetan "Espainiako makina erremintaren ia merkatu guztia kontrolatzen dute". Talde horren barruan IDECO ikerkuntza sailak garatutako Control Idem delakoa bultzatzea ere izan da Txurtxilen helburua Pariseko feria honetan.

Orniko ordezkariak adierazi digutenez, berriz: "makinaria sinplea eraman eta sofistikatu alde batera utzi dugu, merkatuaren beharrei erantzun asmoz".

Eta Soralucekoek: "Fresatzeko hiru makina eraman ditugu Parisera, horietako bi bankada finkadunak eta bestea Zutabe mugikorduna".

"Honelako sektoreetan ikerkuntza eta garapena ezin daitezke inoiz alde batera utzi" esan digute Lazpiurrekoek. Horregatik Txurtxil eta Soralucek, Gipuzkoako beste hiru enpresekin batera egiten dituzte ikerketak IDECOren bitartez. Lazpiurrek eta Ornik aldiz, beraien ikerketa laborategi propioak dituzte. Lazpiurrek adibidez burutzen dituen ikerketak beste bezero batzuei saltzen dizkie zenbait kasutan. Ornik ordeza, ikerkuntzak beretzako egiten dituzte.

Kontua da Euskal Herriko makina-erreminta sektoreak izugarritzko indarra hartu duela eta Estatuarekin konparatuz Euskadikoa puntapuntan aurkitzen da. Europa mailan, berriz, Alemania eta Italiaren atzetik omen gaude. Bitartean, Bergarako lau enpresa hauek ahalik eta aurreratuen jarraitzeko lanean dihardute.

Beheko
Taberna

Menestra eta konejoa
dira gure berezitasunak

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74

ederTU

ERA ETA PREZIO GUZTIETAKO ALTZARIAK

Barrenkale 23

Tfnoa: 76 29 65

BERGARA

Don Serafin: Berriz ere San Antonion

Don Serafin Esnaola, nork ez du ezagutzen. 1964. urtean destinatatu zuten Bergarara, Trintxerpen hogeitabost urte abade lanetan jardun ondoren. Beste hainbeste bete ditu gure herrian. Esan daiteke, bergarar gazte gehienak, belaunaldiz-belaunaldi, bere eskuetatik pasa direla San Antonioko Katekesian, Komenio Kaleko Ikastola zaharrean, Pol-Polean... han edo hemen, beti ere gaztetxoekin lanean.

Paduako San Antonio, Ostegun honetan Paduako San Antonio dela eta, une aproposa iruditu zaigu, orri hauetara ekartzeko. San Antonioko Gure Ametsa elkarteak bildu ginen berarekin eta lehengo eta behin azken bi urteetan San Antonio jairik ez izatearen arrazoia galdetu genion.

• Ez dakit ba... Hemengo jaien antolakuntza Honorio Agirregabiriak eramaten zituen garai batetan, aspertuta, utzi egin zuen arte. Harek laga eta hurrengo urtean ez zen jairik egin. Orduantxe hasi nintzen ni, San Antonioko katekesian ziharduten 13-14 urteko neska-mutilekin batera, orain dela hogeitau urte inguru. Etxerik-etxe txanponak bildu genituen, Udalak

ere zerbait eman zigun... Programa prestatu genuen: pregoia, desfileak, dantzaldiak, jolasak, olinpiadak, nagusien eta haurren tanborrada... Azkeneko aldiz, orain dela bost urte irten nintzen ni tanborra jotzen. Baina baldintza bat jarri nien San Antoniokoei: 70 urterekin eurorok ere irten beharko zutela. Harrezkero utzi egin nion, Donostiara joan nintzen eta. Iaz auzoko gazteak eta tabernariak mugitu ez zirenez, jairik ez zen antolatu. Aurten ere kale egin dute... Toki Ederren, berriz, finago ibili dira. San Antoniotarrei, dena den argi esan nien: "Toki Ederrekoak ez dizkizute jaiak harrapatu, jaiak zuek utzi egin dituzue. Sei-zazpi hila betetako aurrerapenez abi-



xua eman eta gero ez zarete mugitu..., zuena da errua".

• Direnak direla oraingo honetan ere jai barik geratu dira San Antoniokoak.

Aurtengo urriaren 10ean 76 urte beteko ditu Don Serafinek. Errezilen jaio bazen ere ia bizitza guztia beste bi herriren artean igaro du: Trintxerpen eta Bergaran, hain zuzen.

Orain Donostian bizi da, duela bi urte mokorretik operatu zutenetik.

Jaioterriko oroitzapenak izango dituzu...

• Egia esan Errezilen jaio banintzen ere, bi urte t'erdia neuzkala Ormaiztegira joan nintzen bizitzera. Abade egin nintzenez, 23 urterekin, lehenengo destinoa Trintxerpera eman zidaten. Han 25 urte egin nituen, 1939tik 1964ra.

• Lehenengo meza non

eman zenuen?

• Apaiz egin eta Bergaran bertan, San Pedroko Parrokian eman nuen aurreneko aldiz, gerra denboran; Bergarako seminarioan egin bait nintzen apaiz. Bigarrena Ormaiztegin, uztailaren 16an, Karmen egunean. Handik egun batzuetara Trintxerpera bidali ninduten.

• Eta Trintxerpetik Bergarara...

• Horrela da. 1964ko ekainean etorri nintzen hona. Trintxerpen eleiza itxi egin zidaten, prezintatu, eta kastinguz Bergarara bidali ninduten. Gobernadoreak, alkateak eta gotzaiak, hirurek elkarrekin hartutako erabakia. Politika kontua, betikoa... Trintxerpeko herritarrek neu Parroko izenda nezatela nahi zuten, eleiza neronek egin bait nuen. 1953an bukatu genuen eleiza eta 1963a arte ez zuten parrokia bihurtu, neu

GIARTZU

(M. Isabel Hurtado)

DERMOESTETIKA OSOKO ZENTROA

Laser izpien bidezko errekupeazioa
Errekuperagailu elektrikoa
Korronte kapazitatiboak
Bonif Laskurain 3, Etxabea

Estetika Tratamenduak
Larruazal garbiketak
Kosmetika Espezializatua

Tfnoa: 76 35 71 BERGARA



LIZAR

Altzariak

Dr. Fleming 5. Tfnoa: 76 16 53
BERGARA

parroko ez izendatzearen. Orduan beste parroko bat jarri zuten eta jendeak protesta egin zuen. Lehenengo igandean ez zen inor mezetara joan eta kalean 5000 lagun bildu ziren. Horrexegatik prezintatu zuten eleiza.

Bergarara etorri berri, omenaldi bat eskeini zidaten Trintxerpen, 25 urte betetzen zirelako hara joan nintzela. *Doskaballosa* erregalatu zidaten, eta harrezkero zitroenarekin...

• **Zegiro aurkitu zenuen Bergaran?**

• Ni neu ez nintzen hona lanik egiteko asmotan etorri kontutan hartuta ze baldintzapean heldu nintzen... Baina pixkanaka-pixkanaka zezozer egin behar, neri geldi egotea ez zait batere gustatzen eta. Honela ekin nion San Antonion katekesiak emateari, 1966an. 40 haurrekin hasi eta 500 inguru neuzkan azkenetako. Kaletik ere etortzen zirenez, komunioa eginda zituztenentzako Komenio kalean parrokiak duen etxean ere katekesiak ematen hasi nintzen.


• **Ikastola ere urte haieran sortu zen...**

• Bai, Ikastola Komenio kaleko parrokia etxean, azkeneko pisuan sortu zen. Juste Amenabarrek, Markos Gabilondok..., bultzaturik: neu ere tartean nengoen. Baina katekesis izenean, orduan sei urte egin arte eskolara joatea ez bait zen beharrezkoa. Eleizaren babespean sortu zen Ikastola. Behin Goardia Zibilak etorri zitzaizkidan, Rico Sargentoburu zela. Ikastolako andereñoen informea eskatu eta nik ezetz ez niela emango. Hutsik joan ziren. 1969-70an izango zen hori.

Gero bapatean gizonezko batzuk hurbildu zitzaizkidan ea umeekin mendi kontuan lan egiteko prest nengoen, Boy Scout moduko taldeak osatzeko. Nik umeekin aritzeko prest nengoela, baina Boy Scout ezta pentsatu ere. Bazegoela Pol-Pola, eta hobe zela bertan gazteen saila bultzatzea kontrakoak sortu gabe.

• **Hortaz Pol-Polean ekin zinen lanean?**

• Bai bertakoekin hitzegi nuen eta konforme, gazte sailari indarra emateko ados zeuden. Baina kondizio batekin: umeen talde haretaz neu arduratzea. Baiezkoa eman nien baina nik ere baldintza bat jarri nuen: domekero, domekero mendira joaterik ez neukala eta giak jarri behar zizkidatela. Jarri zituzten giok eta horrelaxe hasi ginen 1969-70ean.



Hamar urte pasatxo gaztetxoekin lanean egin eta gero, uzteko garaia bazela eta laga egin nuen. Jesús Mari Barrutia, Iñaki Madinabeitia eta horiei utzi nien testigua.

• **Diktadura garaian arazo politikorik izan zenuen?**

• Enfrentamendu handirik ez nuen izan. Behin bakkarrik, hemen Bergaran, Guardia Zibilekin. Baina uste dut



San Antonioloko eliza: Don Serafinen Parrokia.

niri ere beldur pixkat bazidatela. Ni hortan nago, hori uste dut, bestela gehiago sartuko ziren. Behin Goardia Zibilak Juventudesezko eskilaretatik gora zetoztela zera oihukatzen zuten: "*Aquí vive el cabrón de Don Serafín, vamos arriba, vamos arriba*", baina nik kanpoan entzuten nien, niregana ez ziren etorri. Koartelera ere ez nuen sekula deitu.

• **Garai hartako dokumentu ugari izango dituzu...**

• Bai klandestinidadeko idazkin ugari ditut. Apaiz lanak. Orain ordenadore bat erosi eta denak garbira pasatzen ari naiz. Dagoeneko ia 300 folio gordeta dauzkat, 1944an hasi eta urteka, urteka, 1956ra arte. 1960etik aurrera dexente ondo jarrita dauzkat. hemendik aurrera lan handia daukat, dokumento asko ditudalako, baina lan erraza.

• **Zu elizgizona izanda ere, beti ibili izan zara haurrekin batipat. Zergaitik?**

• Hala tokatu zaidalako zahartu naizen arte. Trintxerpera joan nintzenez eleizara ez zen inor hurbiltzen.

Gailegoak ziren gehienak, arrantzaleak. "*El barrio rojo de Guipuzcoa*" deitzen zioten hari. Anarkistak bait ziren gehienak. Sozialistak ez, anarkistak, CNTkoak. Jende ona. Gero jakin izan dut CNTkoak zirela, haien umeen bitartez: "*Sí, éramos de la CNT, y éramos buena gente*". 4000 biztanletik gora zeuzkan orduan Trintxerpek. Mezetara, berriz, berreun ume besterik ez ziren etortzen. Eta jakina, nondik hasiko nintzen ba?... Umeekin ekin nion. Katekesiak jarri, Guadalupera eskursioak egin, kirolak eta jolasak antolatu...

• **Hemen ere horrelakorik antolatzen zenuen...**

• Bai, San Antonioloko jaietan eta katekesietan. Gabonetan jaiotza lehiaketak egiten genituen hemen Gure Ametsan. Marrazki lehiaketak ere bai... Horiek denak diapositibetan eta zinean hartuta dauzkat. Orain Euskal Filmotekara eraman ditut, behar bezala gorde eta kopiak egin ditzaten. Pentsa 1941ean Trintxerpen ateratakoak ere baditut.

• **Beti izan zara aintzin-**

dari horrelakoetan: argazkiak eta diapositibak etaratzekoan, zinea emate-rakoan...

• Horrela da, 16 milimetroko lehenengo zine sonoroa, ez Gipuzkoan bakarrik, Euskadi osoan baizik, nirea izan zen. Herreratik, Alzátik, inguru guztietatik etorritako 1200 ume biltzen nituen Trintxerpen zinea ikusteko. Pelikula txarrak, kalitate eskasekoak. Baina besterik ez zegoen eta... Hori 1941ean. Gero Trintxerpen zine hobea goa jarri zuten, baina hala ere, haruntza joan beharrean nireira etortzen ziren. Giroa zen aparta...

Handik lasterrera Gipuzkoa osoan zineak jartzen hasi ziren. Neuk lagundu nien jartzen gainera: Aretxabaletan, Ordizian, Ormaiztegin, Ataunen..., toki askotan.

• Argazkiak ere pilo bat atera izan dituzu...

• Baita. Baina ez dut izan sekula afizio berezirik fotografiarako. Hori bai, berehala konturatu nintzen oso tresna baliagarria zela dokumento bezala. Garai ezberdinetako argazki piloa daukat gordeta. Gero gorrekin eta atzeratuekin ere lanean jardun nuenean Bergaran, filminen bitartez irakasten nien. Katekesiak ere diapositibekin eman izan ditut...

• Meza ematen jarraitzen duzu?

• Bai, bai. Orain zapatuero etortzen naiz hona, San Antoniora. Gero, Donostian bizi naizenez, han ere ematen ditut ia egunero. Bainan toki ezberdinetan, ez bait dut nahi inongo parrokiarekin loturirik.

Gaur hemen, bihar han, etzi bestean..., horrela ibiltzen naiz, *por libre*.

• Zergatik alde egin zenuen Bergaratik?

• Ez, edadea ailegatu zitzaidan eta... Begira, orain dela bi urte mokorretik operatuta nago. Behin 70 urte egin nituenean, abadeen batarretara gehiagoez agertzea erabaki nuen. Apaiz gazteei esan nien: "Zuek konpondu. Zuek egin behar dituzue lanak bai, beraz zuek erabaki. Hemen banago zuentzat eragozpen bat besterik ez naiz izango", eta utzi egin nuen.

Operatu nindutenean medikuek Bergarara ez etortzeko agindu zidaten. Etxean ere Donostiatik ez mugitzeko esaten didate. Arrazoiak gainera. 76 urterekin kotxea hartu, Bergarara etorri, hiruzpalau meza eman eta berriz Donostiara bueltatzea, 150 km egitea, ez zait komeni baina...

• Bergarako abadeekin harremanak mantentzen dituzu?

• Nik harreman haundiak Don Imanolekin, San Miguel pasteleriako Joxu, hil zenarekin, Don Pedroekin eta Don Miguel Altunarekin izan ditut. Elkarrekin pasian ibiltzen ginen, pelota ere sarritan. Gasparrenera bazkaltera joaten ginen, eta gero



San Antonloko Katekesitik Bergarako haur ugari pasatu da.

12 abade inguru biltzen ginen kafea hartzeko. Ez ditut aspaldian ikusi...

• Zer egiten duzu orain egun normal batetan?

• Goizeko 9,30ak aldera jaikitzen naiz, ordurik gabe oheratu ondoren. Irratian notiziak entzun, gosalduta eta meza ematen dut, goizetik eman beharra baldin badaukat. Ondoren pasiatzen ordubete inguru egiten dut, ibiltzea komeni zaidalako. Etxera joan eta ordenadoreekin lanean jarduten dut bazkalordura arte. Arratsaldean, berriz, siestarik sekula ez, baina Sak aldera arte telebista ikusten dut. Tarte horretan nik uste dut hiruzpalau aldiz jartzen naizela ordenadore aurrean. Gero 7,30ak

inguruan, pasiora kalera edo meza ematera. Etxera bueltatzen naizenean, afaldu eta berriz ere ordenadorearekin edo telebista ikusten. Berandu joaten naiz lotara.

Gero beste gauza bat. Nire afizioa frontoia da, dirurik ez dut jokatzeko, ikustea gustatzen zait. Askotan joaten naiz Galarretara, erremontea ikustera. Behin gainera Don Pedroekin topo egin nuen Galarretan: "Zer habil hemendik" galdetu, eta Don Pedrok: "gaixo bat bisitatzea etorri neok eta aprobetxatu ein diat honera etortzeko".

Nik erantzun nion: "ez aldrebes, hik frontoira etorri nahi huan partidu ona zeolako eta okasioa aprobetxatu dek gero, erresidentziara joateko...". Eta parre egiten zuten Don Pedrok.

• Pelotaz gain beste kirolik gustatzen zaizu?

• Deportea dena. Realeko bazkide izan naiz orain arte. Aurten hartu dut baja. Zapatuetan joaterik ez dut, komodidade gutxi, tentsio asko... 30.000 pezeta dira urtean...



Don Imanol, Don Serafinen lagunmina, Gorlan Pol-Poleko lagun kuadrila batekin eserita.

Galarreta frontoia daukat bertan eta nahiago dut hara joan. Harrijasotzea eta korrikalariak ikustea ere asko gustatzen zait. Nik behin baino gehiagotan egin dut Bergaratik 11etan irten, meza eman ondoren. Tolosan gelditu, korrika apustuak edo harrijasotzaileak ikusi, gero arratsaldeko 4etan Baldara joan eta iluntzean, berriz, Atotxara. Dena egun berean.

• Realari jarraitzen diozu? Atzerritarren aldeko zara?

• Nik ahal izanez gero extranjerorik gabe nahiago. Baina hori denek, baita atzerritarrek ekarri dituztenek ere. Baina hemen jokalaririk ez baldin badago, ze erremedio...

Atzerritar garestienak ingelesak dira eta merkeenak txekiarrek, poloniarrek, yugoeslaboak... Boronatek ingelesak nahi zituen, nahiz eta besteek ere errenimendu ona eman.


Niretzat Boronat oso futbolista ona izan zen. Baina partiduak ordu t'erdia irauten bazuen, batzutan neurketa osoan egoten zen ezer egin gabe. Beste askotan berriz, genial, baloia zelai erdian hartu eta portieriaraino. Atkinsonen antzera, ona baina batzutan, tarteka. Entrenadore bezala asko dakiela uste dut, baina karakter gutxiko gizona...



60. hamarkadaren amaieran Pol-Poleko gaztetxoek salla sortu zuen Don Serafinek. Igandero igandero, Irteerak antolatzen zituzten inguruetako mendietara. Argazkian, 1957. urtean jaiotako motil-koxkor bergararrak Plaentxiko zubian.



Zurekin lan egin dugunok...



Juan Mari errasti

Don Serafinek izugarritzko lana egin zuen bere garaian Pol-Polean. Bera izan zen gaztetxoek sailaren sortzaile eta bultzatzaile. Gazteen akanpadak ere berak bultzatu zituen. Lehenengoa Altsasun burutu genuen 1970ean. Neska-mutikoei beren buruen jabe izaten erakustarazten saiatu zen. Janariak, esaterako, eurok prestatzen zituzten.

Pol-Polak Komenio kalean duen lokala ere neurri handi batetan Don Serafini zor diogu. Gotzaiarekin zituen hartu-emanak oso garrantzitsuak izan ziren Pol-Poleko etxearen eraikuntzarako. Gor eta atzeratuekin egindako lana ere benetan goraiatzekoa da...




Pilare Mujika

Don Serafini buruz hitz onak besterik ez ditzaket esan. Hogei urte izango dira Komenio kaleko parrokia etxearen azkeneko pisuan Ikastola sortu genuela eta Don Serafin ere tartean zegoen. Izan ere, eleizaren babesean, klandestinitatean, sortu bait zen Ikastola. Don Serafin buru zela lan asko egin ziren Ikastolaren alde. Gizon atsegina benetan, despatxoko mahaia paperez beteta edukitzen zuen beti eta berak zera esaten zuen: "batzuekiko desordena dena, beste batzuekiko ordena"...



Ignazio Igartua

Don Serafinekin 13-14 urte nituela hasi nintzen, auzoko beste neska-mutil batzuekin batera. Garai hartan San Antonion ez zen jairik antolatzen. Beti aurrera begira zegoen, gauza berriak asmatzen. Berarekin batera ekin genion ekintzak antolatzeari, jaiak prestatzeari. Jaiak antolatzeari utzi zionetik, pixkanaka-pixkanaka behera etorri dira. Iaz bezala aurten ere ez da jairik egongo. Don Serafin ez zen nik ezagutu ditudan beste abadeen modukoa. Meza edo bedeinkapena emataz gain, ekintza ugari antolatzen saiatzen zen. Gazteei eskua luzatzeko beti prest. Gazteen arazoez kezkaturik...



**ETXE-
-AUNDI**
Negozio bazkariak
Ezkontzak
Banketeak
Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56
OÑATI

Pepelu
Ileapaindegia
Zurradero 2, Behea
Tfnoa: 76 43 07

IXUKUN
BEREZITASUNAK
Fraiskozuri 6, Tfnoa: 76 51 62
BERGARA

iRUDI
Erlojutegia
Bitxitegia
San Pedro 11,
Tfnoa: 76 51 65


IZOKIAK
IZARRHOTZ
IZOKIAK
Barrenkale 10, Tfnoa: 76 18 22

Zer iruditzen zaizu azken bi urteetan San Antonion jairik ez egotea?



Juan Carlos Fernandez
20 urte

Gaizki iruditzen zait, auzokoek dirurik ematen ez dutenez ezer egiterik ez dago.



Andres Fernandez
45 urte

San Antoniokoak tradizio handiko jaiak izan direnez, gaizki iruditzen zait. Beharbada auzoan gazte gutxi dagoenez...



Iñigo Juaristi
32 urte

Gaizki. Lehen, jaiak antolatzen ziharduen jendea nekatu egin da, ez dago erreleborik. Jendeak gehiago lagundu beharko luke, batez ere gazteek.



Mariasun López
39 urte

Gaizki iruditzen zait baina jenderik ez dagoenez, onartu egin behar.

AE **ELKORO
ANTENAK**
· TB Satellite bidez
· Telebanaketa
ARRASATE
Tfnoa: 79 18 86






Periodikuen atarramendua

Periodikuetako eta periodisten primizia, erreportaia, "hitz majiko" eta berrogeitalau orduan burua berotu ondoren idatzitako eritzizko artikuluen akabera inork uste duen baino xeblearegoa izaten da. Ia hustuta egon ondoren gainezka dauden pantanoei buruzko erreportaiak baserritar baten ortuko erretura edo sukaldeko beheko sua pizteko balio izan dezake. Izan ere gure aitajaun-amandreek esaten dutenez, periodiku paperen modukorik ez dago sua egiteko; errebistena, berriz, zero.

Bangladesh-en izandako erauntsi eta desastreei eskainitako bi orrialdeek bere maillot azpian sartu zituen Marinok Navacerradako gainean, jeitsieran bere petxua haize leunagotatik babesteko. Eliza eta erlijioaren aurka idazle nafar batek idatzitako artikuluan batuta ikusi nuen Kandelaria egunean larogei urteko amona xaharrak bedeinkatzen zeraman kandela. Esku parean ez biguntzeko.

Lija batzeko ere erabiltzen da. PSOE-k boterean bizi duen desgasteari buruzko eritzizko artikuluan eraman nuen etxera herenegun, Isidoranean erositako lija zatia. Eta atzera lagatakoak, azkenik, "viaje de estudios"-a ordaintzeko kartoi eta paperak batzen ibiltzen diren zazpigarren eta zortzigarren mailako mutiko eta neskatila burdidunen eskuetan bukatzen dira. Hori da lanaren atarramendua.

Joseba Lezeta



Bergara 1991-6-10.

Eskola urtea bukatzeaz dagoen honetan, balantze koskor bat egitea dagokio bertan dabilenari. Gure kasuan, eta bertsoaren inguruan gabiltzanez bertso eskolarena eta bertako emaitzak hain zuzen ere.

Joan zen asteburuan ospatu zen Donostiako Karmelo Balda pelotalekuan XI. Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolari txapelketa. Han izateko aukera izan genuenok oso gustora irteko arrazoiak izan genituela deritzot. Batetik bertsoen kalitate maila geroz eta gorago dihoalako, eta bertsolari kopurua ere bai, telebista, bertso jaialdi antolakuntza eta batipat hainbat eta hainbat bertso eskola eta bertan dabilzan maisuei esker; eta bestetik, maila horren barruan Deba Garaiko talde jator batek txapela eskuratu zuelako bapateko saioan.

Bejondeizuela beraz, Elgoibarko Irati, Arnaitz; Aretxabaletako Larraitz, eta batez ere Bergarako Ainhoa Agirreazaldegi, taldeko txapelaz gain maila horretan zeuden hogeitartaitatik bertso onenaren saria irabazteko gaitasuna erakutsi geniguzulako. Orain artekoa gutxi bada, bertso-idatzizko lanetan ere aipamen berezi bat eskeini zizutelako.

Bejondeiala baita, bertso eskolako maisu leial haurgun Pello Txintxurreta, urtez urteko ahaleginez, eta bereziki aurtengo honen bukaeran emaitza garrantzizko bat lortu duan horri.

Bejondeizuela zuei ere, Ainhoaren gurasuei, euskeraren arma preziatua dugun bertsolaritzaren bidera bultzatu eta animatu duzuelako zuen alaba.

Badakit bestalde, larunbat honetan Gernikan ospatuko den Euskadiko txapelketan ere, Bergararrak paper bikaina egingo duela, Bizkai aldean oso bertsolari trebeak daudenarren.

Koldo Alberdi

Merzeria - Lenzeria

Merzeria - Lenzeria

D. Irala 5, Tfnoa: 76 25 69
BERGARA

Siaska

Dena zure

haurarentzako

Pedro Deuna 10, Tfnoa: 76 10 39
BERGARA



IRAKASLE ESKOLA

E s k o r i a t z a
G i p u z k o a

Irakasle Eskola honek zera jakin arazten du:
1991-92 ikasturterako aurreinskripzio-epaia
zabalik dagoela.

Espezialitateak:

- ZIENTZIAK
- HAUR-ESKOLA
- EUSKAL FILOLOGIA
- INGELES FILOLOGIA

Informazioa: Irakasle Eskola. Tfnoa: 943 / 79 04 40.
Ordutegia: 9.00-12.00 eta 15.00-18.00

Galderak egiteko aukera

Hemendik aurrera orrialde honetan atal berri bati emango diogu hasiera. Bertan irakurleok egiten dituzkiguzuen galderak erantzuten saiatuko gara. Egizkiguzuzuk galderak, osasun, inpuesto, lege, edo etxe nahiz kotxearen inguruan, edo... halako mantra nola kentzen den edo... lagunarekin izan duzun diskusioan arrazola norik duen edo... nahi duzuna. Zuk galdetu, kartaz zein telefonoz, eta gu ahaleginduko gara lehenbailehen erantzun egokia ematen.

15 Ertzainek multarik jar dezakete herri barruan? Zer konpententzia banaketa dute ertzain eta udaltzainen artean?

Herri barruko bideen konpententzia udalarena da bideon jabea udala denean.

Herri barrutik pasatzen diren zeharbidetako edo trabesien kasuan konpententzia Trafiko Zuzendaritzarena da.

Zigorra jartzeko ahalmena, herri barruko udal-bideen kasuan, herri bakoitzeko alkateak du.

Bergaran ertzaina, trafiko kontuan, udaltzaingo zerbitzurik ez dagoenean (gauetz eta jai-egunetan) aritzen da, herri barruko udal bideetan. Zeharbidetako edo trabesietan beti.


Ertzainak jarritako isunak udalak tramitatzen ditu udal bideetan izan badira eta Trafiko Zuzendaritzak zeharbidetan izan badira.

(Informazioa: KIUB)

16. Katakume bat dut etxean. Nola erakutsi diezlokot edozein lekutan kaka egin ez dezan?

Katua animalia garbia da berez eta bere eginbeharrekoak inguruan inor ez dela egin nahi izaten ditu eta gero kaka tapatu egiten du, gainera, normalean.

Hori dela eta, egokia iza-



ten da bandeja edo kaxa batean harea edo zerrautsa jarri eta etxeko leku ezkutu batean ipintzea. Katakumeak laster ikasiko du toki hori erabilzen. Akordatu zaitez egunean behin behintzat bandeja, edo kaxa garbitzeaz.


Lorategian eta, kakarik egin ez dezaten, badago erremedio on bat: bota itzazu laranja azalak kaka egiterik nahi ez duzun lekuan. Laranja azalen usainak uxatuko ditu.

17 Zenbat unibertsitate-ikasle daude Bergaran? Asko al dira?

Hezibide Elkarteak emandako datuen arabera,

Bergaran, 1990-91 ikasturte honetan 301 pertsona ari dira unibertsitatean ikasten. Kopuru hori herritarren % 1,96a da. Eta Antzuola da, hain zuzen ere, Bergarak baino proportzio baxuagoa duen herri bakarra. Gainontzeko herrietan Bergaran baino proportzio altuagoak dituzte: Eskoriatzan %2,19, Arrasaten %2,31, Aretxabaletan %2,38 eta Oñatin %2,75. Bestalde, esan beharra dago eta gehiago direla ohizko Diploma eta Lizentziatu karreraren ordean Goi Mailako Lanbide Heziketa egiten dutenak

(Informazioa: Heziketa Elkarteak)



UME

GAZTE

Irizar 3

Ibargarai 8

Tfnoa: 76 16 54


Tfnoa: 76 54 73

LAZKANO

oinetakoak

BARRENKALE 15

BERGARA Tfnoa: 76 25 03



POL - POL TABERNA


Tfnoa: 76 48 51

DEPORTIVO TABERNA

Tfnoa: 76 01 51

□ **Odriozola 91**

Odriozola abizena duten 2000-3000 pertsona inguru bilduko dira hil honen 30ean Loiolan. Odriozola abizena jatorriz Azpeitiakoa omen da eta Odriozolatarrak 1610. urtetik Loiolako Ignazioren zaindaripean daude. Aurten santu honen jaiotzaren V. mendeurrena ospatzen denez, Odriozolatarrak Azpeitian bertan biltzea erabaki dute. Aipatu, 1956. urtean bildu zirela azken aldiz eta garai haietako egunkariak ziotenez, Odriozolatarrak munduko familiarik haundienetako bat osatzen zuten. Aurten, mundu guztitik etorriko zaizkigu eta animatzen bazara (93) 4730828 (Josep Oriol de Odriozola) telefonora jo dezakezu.



□ **Kinto bazkaria**

Ez ziren Odriozolatarrak beste pertsona bildu 1950.eko kintoek domekan izandako bazkarian. Dena den, hauek ere primeran pasa zutela esan behar; goizean San Pedro Parrokian meza entzun ondoren, 40 lagun inguru bildu ziren Lasa jatetxean bapo bazkaltzeko. Guztiak 1929an jaiotakoak genituen eta ziur gaude aintzinako kontuak nagusi izango zirela bazkal osteko berriketaldian...


□ **Hala Madrid!**

Asteartean R. Madrideko jokalaria Antzuolako Danok-Bat elkartearen bazkaltzen izan ziren. Don Cesareo Gabarain zenari egindako omenaldia zela eta hurbildu zitzaizkigun madrildarrak Antzuolara. Arratsaldean Realaren aurka jokatu zuten Arrasaten eta Realaren denboraldi kazkarraren ondorioz, ez dakigu antzuolarrak madrildarren alde ez ote dauzkagun...



Zertan
dihardute
ba?


IZASKUN PARDINA



27 urte, bergararra. Andoingo Zine eta Bideo eskolan ikasi ondoren, urte t' erdi darama ETBko Miramoneko estudioetan.

Funtzioa eta Bilin-Bolonka saioetako erre-gidorea da: errealizado-reak emandako aginduak platoan bete arazten ditu.

MIKEL URIBESALGO



23 urteko bergararrak hil honen 22an Ordizian jokatu den Gipuzkoako Banakako Txapelketarako txartela lortu du. Gipuzkoako 2. mailako klubaren arteko Txapelketan, luzera jauzian 6,65m.to marka egin ondoren.

OILAGORRA

TABERNA

Barrenkale 21 BERGARA

Kabia

Altzariak

Gipuzkoa Etorbidea 28, Tfnoa: 79 27 70 ARRASATE

Hau dok barreguria

Aintziñan gizon bat itto ei zan Maltzaga inguruan ufalak harrapauta. Haren gorputzaren bila hasi zienian abixu hau pasau zan inguruko herrixetara gizonan ezaugarri honek emonaz:

"1,62 m. alturia, ilea baltza, begi urdiñak, narruzko zapatak. Errez eza-gutzeko modukua da, erdi plaentziar eitten dau berba eta".

- Baiña hi ez haiz sekula garbitzen ala?

- Sekula bez; bestela alperrik galduko nintzakek.

- Baiña gizonak zela esan leike hori?

- Medikuak diñuan bez burdiña bezelakotxe osasuna jaukat eta bustiko bannitz ugartu egingo nintzakek.

Aittak eskolatik nega-



Errez zetorren mutikuai:

- Zer pasatzen jak?

- Maisuak jo egin nau Brasil nun dauan enekixelako.

- Ongi egin dosk. Hurrenguan hobeto begiratu gauzak nun lagatzen dituken.

Abadiak dotriñan:

- Zeifiek nahi dau zerura joatia?

Luisek ez beste guztiak:

- Nik!, nik!, nik!

- Eta zuk, Luis, eztozu zerura joaterik nahi?

- Ez, amak seiretarako etxera joateko aginddu dost eta...

J. M. Elexpuru

Bergara eta Durango (2)

Beste batek honela dio:

"Antzuolan sedia, Bergaran koipia, Elorrixon buzkantza, Durangon tronpia"

Hor aipatzen diren zeta, koipe eta buzkantzak nondik norakoak diren ez dakigu; Durangori berriz, oraindik ere "tronperri" deitzen zaio eta tronpa bai, nondikakoa den ba dakigu, Santander-etik ekarritakoa noski, Menendez y Pelayo-k idazle zaharregandik jasota esaten duenez.

"Tronpa" horretaz baliatzen omen ziren hain zuzen, XV mendean (1442-1445), Durangon, Frai Alonso de Mella praile prantziskotarra gidari zuela sortutako sasierlijiokideek elkarri bere bilkuretara deitzeko. gero agintariak eskuhartu, eta "Cronica Cuarta General"-ek dioskunez ehunetik gora izan omen ziren epaitu ondoren erretako «gizon, emakume eta neska».

Bainan Durangoz ari geranez gero ba da XVI mendean Bergararen beste aipamen interesgarri bat, gaztelaniaz idatzita badago er. Mexikoko lehenengo gotzai eta arzapezpiku, eta bertako indioen aldeztaille azkar izan zen Frai Juan Zumarragak egiten du, bere hiloba Santxo Gartziazi idatzitako eskutiz baten honela diola: "Nire ustez, Bergaran puntarik gabeko haiztoak eginarazi behar zenituke, haundiak ez, arrabetekoak baizik, eta bai idaztresnakutzak ere (...), han onak egiten bait-dituzte..."

Garibai ere horretan bat dator, Bergaran besteak beste gain-gaineko haiztoak egiten zirela bait-dio bere "Compendio Historialen"-ean.



Josu Oregi

FERNANDEZ



OIHAL PUSKAK
OIHALAK

Tfnoa: 76 22 93 Tfnoa: 76 53 22
San Antonio 3 Ibargarai 2

BERGARA



Kanping, hondartza, terraza eta
kirol gaien aukera handiena
aurkituko duzue salmenta onean

Eco Gasteiz en

Cercas bajas 34, GASTEIZ




Skate txapelketa

Maila benetan ona erakutsi zuten larunbatean skate lehiaketan parte hartu zuten bergarar gaztetxoek. Hamabi urtera arteko kategorian 10 gaztetxo aurkeztu eta Iker Bolibarrek lortu zuen azkenik garaipena, Ion Elkoroberezibar eta Andoni Elkororen aurretik. Hamahiru urtetik gorakoenen artean berriz, Arkaitz Elkoro izan genuen garaile, Asier Balzategik eta Xabier Larrañagak 2. eta 3. postua eskuratuz. Guztira, bi kategorietan, 16 partaide izan ziren eta esan behar nahiko jende bildu zela Matxiategiko pistan gaztetxo hauen goraberak jarraitzeko. Udal Kirol Zerbitzuak uda amaieran honelako beste froga bat antolatzeko asmoa du.



Gorka Marzan txapeldun

Gorka Marzan hamabost urteko Angiozarko txirrindulariak kadete mailako Gipuzkoako txapelketa irabazi zuen Aretxabaletan. Gorkak *Caldereria San Pedro* taldearekin korritzen du beste hamaika lagunekin batera. Gorkak era ezin hobean burutu du aurtengo denboraldia eta igandean San Antonioko lasterketaren irteeran izango dugu beste garaipen baten bila.



Eskaladoreak bikain!

Bergarako eskaladoreak emaitza izugarriak lortzen ari dira azkenaldian; Aitor Pairok 23 urteko bergararrak Beasainen jokaturako Euskadiko Masters-a eta, bide batez, Gipuzkoako Kirol Eskalada Txapelketa eskuratu zituen. Arrasatearra jaiotzez, baina orain Bergaran bizi den Beatriz Jimenezek bestalde, Espainiako Txapelketaren proba bat irabazi zuen Alicanten. Bai Aitor eta bai Beatriz ere, Bergaran diren 14-15 eskaladoreek lortu duten maila onaren lekuko ditugu. Guztiek rokodromoa, gimnasioa eta Araotz edo Atxarte erabiltzen dituzte beraien entrenamenduetarako, eta hil honen 29an Euskadiko Txapelketan ikusi ahal izango ditugu Bergaran.

San Antonio saria

Igande honetan, Bergarako Txirrindulari Elkarteak antolatutako bigarren urteko kadeteentzat L.V. San Antonio saria korrituko da. Txirrindulariek 69 km.tako ibilbidea bete beharko dute eta tartean, Udana eta Deskargako mendateak izango dituzte. Proba goizeko 10.15tan hasi eta txirrindulariek Espaloian izango den helmugara hamabiak aldera iristea espero da.

Arrantza

Ollagorra Ehiza eta Arrantza Elkarteak San Juanen antolatutako arrantza lehiaketan, Juanito Lopez (nagusietan) eta Ion Alberdi (gazteetan) izan genituen irabazle. Alejandro Alberdi eta Iban Biainek irabazleek beste amorrain harrapatu arren, bigarren postuarekin konformatu behar izan zuten amorrainen pisuagatik. Mikel Lezetak amorrain handienari zegokion saria jaso zuen.

IRUBIDE

Taberna

Bazkariak, gosariak, afariak, etab.
Urteaga 9 Tfnoa: 76 25 67


M U G I C A

BURDINDEGIA

Bidekurutzeta 8

Tfnoa: 76 28 67

BERGARA



Don Eliasen omenaldiko erretratu eman genuen aurreragoko batean. Oraingoan ere Juzgauko eskolako ikasle talde bat dakargu. Hauen maisuak Hermano Pedro eta Hermano Roque omen ziren. Erretratuak 50 urte inguru ditu. Hona hemen zeintzuk diren ezkerretik eskumara:

1. **ilaran:** Felix Unamuno, Lorentzo Laskurain, Jose Mari Orueta, Mikel Ugarte, ezezaguna, Jose Mari Arizmendi, Cecilio Ezpeleta, Inaxio Arriola, Iñaki Juaristi, Arrieta eta Joakin Etxaniz.
 2. **ilaran:** Balentin Gantxegi, Juanito Oiañeta, Patxi Arriola, Jose Mari Arriaran, Alejandro Durana, Ramon Lazpiur, Patxi Alberdi, Juanito Muniategi, Nikolas Larrañaga, Joxe Mari Akizu eta Karlos Albisua.
 3. **ilaran:** Jose Mari Ruiz, Santiago Castro, Jesus Ugalde, Luis Madariaga, Tomas Mujika, Emeterio Elkorobe-rezibar, Felipe Ibabe, Ramon Valencia, Iñaki Azkarate, Tomas Oiarzun (atzetik ageri dena) eta Ino Muniategi.
 4. **ilaran:** Julian Maxach, Alfredo Pedrejon, Felipe Oregi, Ramon Arriaran, Moises Arriaran, Aranzabal eta Higinio Ugarteburu.
 5. **ilaran:** Markos Laskurain (albo batera, irribarrez), Juan Mari Leturia, Jose Mari Ugalde (Juan Mariren atzean), Carbonell, Iñaki Sotil, Eusebio Larrañaga (ilea atzera orraztuta), Jose Mari Arteaga, Anselmo Arrieta (Jose Mariren atzekoa), Daniel Castillo, Ibañez eta ezezaguna.
- Atzeko ilaran:** Marcelino Goenaga, Jose Mari Mujika, Pako Valencia, Periko Agirre, Jose Mujika eta Jose Antonio Laskurain.

Estepan Plazaola

Argazkia: Bixenta Jauregi

Informazioa: Lorentzo Laskurain.

MEMESA

IRIMO

SKF

phantom

Arrasate 79 42 22

Artxabaleta

Oharra:

Orrialde honetan
iragarkiak ez dira
ordaintzen.

**ETXEBIZITZA**

- Pisu ederra salgai Iri-
zar pasealekuan. Deitu
761708 Tfnoa.
- Pisu behar dut alki-
lrean. Tfnoa: 764255.
- Pisu bat alokatzen dut
Martokuan. 761460
- Pisu salgai Koldo
Elizalde 20an. Deitu gaue-
ko 20etatik aurrera 764252
Tfno.ra.
- Pisu salgai Koldo
Elizalden. Tfnoa: 765823.
- Pisu alkilatzen da
Böln. Tfnoa: 763797.
- Pisu salgai Olan,
konpondua eta amuebla-
tua. Modu onean. 761669.
- Soto eta garajeak sal-

gai Martokuan. Tamainu
ezberdinetakoak. 761078.

- Pisu salgai; garaje
eta guzti. 763911.
- Baserria alokatu nahi
dugu Bergaran. 763431.
- Pisu edo buhardilla
hartuko genuke alokairu-
an. 764735.

LANA

- Eraikuntza materialen
biltegi baterako errepre-
sentantea behar da. Deitu
lan orduetan: 760141.
- Neska euskaldun bat
behar da etxeko lanetara-
ko. Mesedez fundamento-
duna. 760180 Tfno.a.

DENETARIK

- Ihauterietan galdu-
tako argazki kamara ba-
daukazu, deitu: 763270.
Sarituko da.
- Funda marroldun be-
taurreko graduatuak galdu
dira San Martin Enparan-
tzan. Aurkitu dituenak dei-
tu mesedez: 762485 Tfno.
ra.

SALDU-EROSI

- Soinu bat salgai. Deitu
764195era.
- 28 urteko pinudia sal-
gai. Terreno eta guzti. 76-
1201.
- Yamaha 250 SR oso
egoera onean salgai. Deitu:

862071era.

- Salgai ski eta bizi-
kleta eramangailua; bi lo-
karri, eta erretenarekin
762852.
- Renault 6 edo antzera-
koa erosiko litzateke. Dei-
tu 762386 tfno.ra gaueko
10.00etatik aurrera.
- Karrerako bizikleta
polita eta arina salgai. Ez
da garestia. 763269.
- *Reflecta Diamator AF*
diapositiba proiektorea
salgai. 762230 gaueko 9e-
tatik aurrera.
- Ford Fiesta SS-K sal-
gai. 765869.
- Hiru urte dituen Mo-
bylette bat salgai. Prezio o-
na. 763276.

Hildakoak

Francisco Martinez Arresa

78 urte, ekainak 6an

Mateo Jimenez Amor

84 urte, ekainak 7an

Ion Ander Kortabarria Iparragirre

7 hilabete, ekainak 7an

Alejandra Gantxegi Gallastegi

87 urete, ekainak 9an

BERRIGARA

Eskatu eta etxean



76 03 97

AUTOPULLMANS ARABA**Autobusak**

Eskurtsioak eta bidaiak edozein tokitara

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 70



Ziripot

Bidekurutzeta, 11 Tfnoa: 76 11 41



TXANPA

**Hauek ditugu
gure
lagun berriak**

Ibargarai 4, BERGARA